



ELGOIBARKO UDALA



## **2010eko NAZIOARTEKO JUAN MUGUERZA KROSA IRAGARRIKO DUEN KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA**

Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren antolatzaile diren Mintxeta Atletismo Taldeak, Elgoibarko Udalak eta Udal Kirol Patronatuak lehiaketa-deialdia egin dute, 2010eko urtarrilaren 24an izango den krosa iragarriko duen kartela aukeratzeko. Hona hemen lehiaketa arautuko duten

### **OINARRIAK**

**LEHENENGOA.-** Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

**BIGARRENA.-** Teknika, librea izango da (argazkia, diapositiba, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira.

**HIRUGARRENA.-** Lanaren neurria honako hau izango da: A 2 edo proportzionala. Diapositibak, berriz, dagokien neurrian aurkeztuko dira.

**LAUGARRENA.-** Ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea, diapositiba bidez aurkezturiko lanetan izan ezik:

### **“JUAN MUGUERZA NAZIOARTEKO LXVII. KROSA”**

#### **“ELGOIBAR, 2010-1-24”**

#### **“VIII. MAMO WOLDE TROFEOA”**

#### **“KUTXA SARI NAGUSIA”**

**BOSGARRENA.-** lehenengo saria HIRUREHUN EUROKOA (300 €) izango da. Horretaz gain, EHUN EUROKO (100 €) accesita emango zaio Elgoibarko lehen sailkatuari. Lehengo saria elgoibartarren bati ematen bazaio, accesita herriko bigarren sailkatuarentzat izango da.

**SEIGARRENA.-** Lanak Olaizaga kiroldegian edo Elgoibarko (20870 PK) 120 Posta Kutxatilan aurkeztu beharko dira. Lanak aurkezteko epea **2009ko urriaren 1etik azaroaren 8ra izango da(biak barne).**

**ZAZPIGARRENA.-** Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira eta atzeko aldean "leloa" eraman beharko du. Honekin batera, kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak eta NANaren fotokopia bidaliko dira, eta kartazalaren gainean lanaren "leloa" jarriko da.

**ZORTZIGARRENA.-** Saritu gabeko lanak epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO epea izango da, epaimahaiak ebazpena ematen duenetik hasita. Epe hori igaro, eta egileek lanak erretiratzeko ez badituzte, uste izango da horiei uko egiten dietela; hortaz, antolatzaileek askatasun osoz erabili ahal izango dituzte horiek. Gainera, egileek ez dute erreklamaziorik egiteko edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

**BEDERATZIGARRENA.-** Saritutako lanak Udalaren eskuetan geldituko dira. Halaber, Udalak berak, lanak inprimatzeko, argitaratzeko, ezagutarazteko eta gainontzeko eskubide guztiak izango ditu.



ELGOIBARKO UDALA



**HAMARGARRENA.-** Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaia nork osatzen duen, erabakia hartuko den egun berean jakingo da. Epaimahaiak argituko ditu oinarri hauek interpretatzerakoan eta ezartzerakoan sor daitezken zalantza guztiak.

**HAMAIKAGARRENA.-** Kartela aukeratu ondoren, antolatzaileek erakunde antolatzaileen logotipoak (goiburuko hiru logotipoak) eta erakunde laguntzaileenak txertatuko dizkiote kartelari. Horrela bada, baldintza hau kontuan izan beharko da kartela egiterako orduan. Antolatzaileek erabakiko dituzte txertatu beharreko logotipoak.

KUTXA SARI NAGUSIA testua letra beltzez idatzi beharko da, eta Kutxaren logotipoa ere jarri beharko da.

**HAMABIGARRENA.-** Antolatzaileek lehiaketa hutsik lagatzeko eskubidea izango dute, lanek eskatutako gutxieneko baldintzak betetzen ez badituzte.

**HAMAHIRUGARRENA.-** Lehiaketara aurkezteko, guztiz onartu beharko dira hori arautzen duten oinarriak.

Elgoibarren, 2009ko irailaren 30ean